



PIR - 5

**PIR - 5
HIZKUNTZ TESTA**

B eta D eredueta
5-6 urteko haurrentzat
(Eskolaurre amaiera)

**GIDA LIBURUA
eta
ikerlanaren azalpena**

PIR - 5

GLOTODIDAKTIKA LANAK 30

Ibon Olaziregi eta Josu Sierra

PIR - 5 HIZKUNTZ TESTA

B eta D eredueta
5-6 urteko haurrentzat
(Eskolaurre amaiera)

**GIDA LIBURUA
eta
ikerlanaren azalpena**



GASTEIZ, 1987

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA

© EUSKAL HERRIKO AUTONOMI ELKARTEAREN ADMINISTRAZIOA
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen Kalea 2-01011 GASTEIZ

Egileak: Ibon Olaziregi eta Josu Sierra

Marrazkilariak: Ahozkoaren Ulermenarena J.A. Lopetegui; kolorea A. Gómez Espinosa
eta Mintzamenarena Fernando García

Azala: Jesus Iturriza

ISBN: 84-7542-424-4

Legezko Gordailua: VI-466-1987

Lehenengo Argitaraldia: 1987ko Azaroa

Ale kopurua: 500

Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A.
Becolarra, 4 – Pabellón 15-A – (Ali-Gobeo)
01010 Vitoria-Gasteiz

AURKIBIDEA

TESTAREN DATU TEKNIKOAK	9
APLIKAZIO ARAUAK	15
ZUZENKETA ARAUAK	21
AZKEN PUNTUAZIOEN TAULAK.	31
ZUZENKETA ADIBIDEAK	37
IKERLANAREN AZALPENA	43
– Ikerlanaren diseinua	45
– Hurrek lortutako puntuazioak	45
– Jasotako beste datuak	49
– Aldagaien eragina hizkuntz testaren puntuazioan	55
– Multzoen deskribapena.	60

OSAGARRIAK:

IRUDIAK

eta

PUNTUAZIO ORRIAK

TESTAREN DATU TEKNIKOAK

Izena:

PIR - 5

Xede-taldea:

Eskolaurreko azken kurtsoko (5-6 urteko) B eta D ereduetao ikasleak.

Materiala:

- GIDA LIBURUA
- IRUDIAK
- PUNTUAZIO ORRIAK

Jatorria:

Urte batzuetan zehar egindako pretest eta hobekuntzen ondoren, 1986ko maiatzean aplikatu zen test hau era zabal batean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuak egindako ikerketa baten barruan.

Egileak:

I. Olaziregi eta J. Sierra, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak.

Tratamendu informatikoa eta aholkularitza estatistikoa:

E.J.I.E.ko Jesus Izarra eta Garbiñe Oleaga.
Estatistika Institutuko Angeles Iztueta.

Laguntzak:

Gure eskerrik beroenak inkestagileei, eskolei eta testa aurrera ateratzen lagundu duten guztiei.

Aplikazioa:

Testa, bi azpiprobez osatua dago: Ahozkoaren Ulermena alde batetik, eta Mintzamena bestetik. Proba biak indibidualki aplikatzen dira. B ereduan bi frogak pasatzen dira. D ereduan Mintzamen frogak soilik.

Lagina:

1986an eskolaurreko azken kurtsoko, B eta D ereduetako lagin bietariko bat egin zen. Lehen etapan lau aldagairen arabera estratifikatua eta bigarren etapan sinplea eta proportzionala. Guztira, B ereduko 500 sujetu eta 82 gela eta D ereduko 463 haur eta 84 gela, komunitate autonomoko ikastetxe publiko, pribatu eta ikastoletakoak.

Testaren deskribapena:

Aipatu denez bi azpiprobak osatzen dute testa.

Ahozkoaren Ulermenak 10 item ditu. Item bakoitzak ipuineko pasarte baten ulermena neurtu nahi du. Ulermena, beraz, aparteko eta loturarik gabeko hitz edo esaldiena izan beharrean, modu globalago batean hartu da. Item bakoitzean marrazki bat aukeratu behar da hiruren artean. D ereduko haurrentzat batezbestean errazegia da frogak hau eta ez du behar bezain ongi diskriminatzen.

Mintzamen proba sei marrazkiko ipuin mutu bat da. Ikusizko estimulu baten aurrean sortutako ahosko espresioa neurtu nahi du. Haurrak marrazkiak ikusi eta ipuina kontatu behar du, irudi bakoitzean gertatzen dena esanez. Mezuaren zehaztasuna eta gramatikaltasuna baloratzen dira marrazkiz marrazki eta, gainera, abiadura, etorria, sintaxia eta ahoskera modu globalean. Gehienezko puntuazioa 60koa da.

Kontuan hartu beharrekoa da, Ulermena eta Mintzamena hemen neurtzen diren eran hizkuntza gaitasunaren arlo batzuk besterik ez direla eta eskola munduari mugatuak gainera. Beraz testetik ateratzen diren datuak muga horiekin interpretatu behar dira beti.

Testaren puntuazio orokorra

Bi azpiproben puntuazio zuzenetatik, puntuazio global bat ateratzeko, azpiproba bakoitzaren barietate koefizientearen oinarritutako ponderazio bat egin da, bien konbinaketa era honetara eginez:

$$\text{Puntuazio Orokorra} = \frac{S_1}{X_1} \times UL \times \frac{1000}{10} + \frac{S_2}{X_2} \times MIN \times \frac{1000}{60}$$

Hau da beraz B ereduko haurren puntuazioa kalkulatzeko erabili den formula:

$$\text{B ereduko Puntuazio Orokorra} = UL \times 34 + MIN \times 7,8$$

D ereduan, berriz, ez dago Ulermen proba pasatu beharrik, eta nahikoa da Mintzamen probako puntuazio zuzenak jaso eta haur bakoitzari dagokion maila konprobatzearekin.(1).

Bistan denez, goiko formula horien bidez eredu baterako eta besterako ateratzen diren puntuazioak ez dira konparagarriak.

Bi ereduetako haurren puntuazioak konparatu nahi izanez gero, Mintzameneko puntuazio zuzenak alderatzea da bide egokiena.

Test hau normatiboa da. 5-6 urteko haurren norma bat eskaintzen du egindako laginean oinarrituta, beste haur berri batzuen puntuazioekiko konparabidea ematen duelarik.

Testaren egokitasuna

Testaren egokitasuna frogatzeko hainbat datu aztertu dira. Esate baterako item analisiak egin dira item bakoitzaren funtzionamendua ezagutzeko. Azpiko tauletan, bai azpittesten, bai test osoaren, batezbesteko, desbiderapen, fidagarritasun eta baliotasuna erakusten dira.

Azpittesten datuak puntuazio zuzenetan oinarrituak daude. Test osoarenak, berriz, puntuazio orokorretan (2). Hortaz, ahozkoaren Ulermenaren rangoa 0-10 da, Mintzamenekoa 0-60, eta test osoarena 0-810 B ereduan eta 0-548 D ereduan.

Fidagarritasuna: Ahozkoaren Ulermena deritzan zatiarena Kuder-Richardson-en 20. formulaz aterea da. Test osoarena berriz bi erdien metodoaz (Mintzameneko baremoaren alor orokorrak ez ziren kontuan hartu).

Baliotasuna: irakasleei iritzia eskatu zitzaaien ikasleen Ulermen eta Mintzamen mailaz, gero datu horiek bi azpittestetan ateratako puntuazioekin korrelazionatu direlarik.

B. EREDUA (N = 494)

	Ulermena	Mintzamena	Test osoa
Batezbestekoa	6,56	25,63	423,41
Desbiderapena	2,23	11,94	143,94
Fidagarritasuna	0,65	—	0,80
Baliotasuna	0,52	0,79	—

(1) Nolanahi ere ikerketa originalean Ulermen froga ere aplikatu zen D ereduan. Orduko puntuazio orokorraren formularako ikus 48. orria.

(2) Ikus 48. orria.

D. EREDUA (N = 463)

	Ulermena	Mintzamena	Test osoa
Batezbestekoa	7,46	40,39	390,30
Desbiderapena	2,15	10,59	92,38
Fidagarritasuna	0,67	—	0,78
Baliotasuna	0,21	0,63	—

Ikusten denez, D eredurako Ulermen probak gutxiegi diskriminatzen du eta baliotasun indizea, horrexegatik, bajua du.

Beraz, D ereduak Mintzamen proba soilik aplikatzea gomendatzen dugu.

APLIKAZIO ARAUAK

Oharra

Aplikazioa toki lasai eta nahiko isil batean egin behar da. Hemen ematen diren arauak estuki gorde behar dira.

Ulermen proba

Haurrarekiko enpatia minimo bat lortu ondoren, honela esan:

Zuri gustatzen zaizkizu ipuinak, ezta? Ba, ipuin polit bat kontatuko dizut.

Neska baten eta bere txakurraren ipuina da. Eta kontatzen du nola joaten diren pirata baten barkura.

Marrazkiak ere hemen ditugu (seinalatu) baina batzuk gaizki daude, gezurrezkoak dira. Zuk asmatu behar duzu zein den egiazkoa, bai?.

Erantzun baino lehen ondo pentsatu e!

Ea ba, entzun ondo.

Hasiera-hasierako orria, 0 orria hain zuzen, erakutsiko diogu. Une batzuk haurrak begira dezan utzi eta gero, testu hau esango diogu era espresibo batez

0	Behin batean bazen Idoia izeneko neska polit bat. Ile horia zeukan eta oso pozik egoten zen beti.
---	--

Ondo begiratu orain eta esaidazu, zein da egiazko marrazkia?

Asmatzen badu, hau da, C aukera seinalatzen badu, ondo egin duela adieraziko diogu:

Ederki! Oso ondo! Ulertu duzu nola egiten den?

Asmatzen ez badu, berriro irakurri eta galdetuko zaio.

Oraindik asmatzen ez badu; erantzun zuzenera bideratuko dugu.

Seguru zaude? Hori neska da? edo Hori pozik dago?.

Asmatzen duenean, animatu egin behar da:

Oso ondo! Ulertu duzu nola egiten den?

Puntuazio orrian ez da 0 galderaren erantzuna markatu behar, adibide hutsa bait da.

Hurrengo orrietan ere egiazko marrazkia zein den asmatu behar duzu. Entzun!

Orria pasatu. Bizpahiru segundu utzi haurrak irudiak ikus ditzan.

Orain entzun ongi!

Testua behin bakarrik irakurri behar da.

1	Idoiak txakur polit bat zeukan, zuri-zuria. Egun batean, Idoia etxetik irten zen bere txakurrarekin.
----------	---

Ondo begiratu eta esan, zein da egiazko marrazkia?.

Erantzuna puntuazio orrian jaso, A, B edo C marrazkiaren koadrotxoan gurutze bat eginez.

Ongi. Goazen aurrera.

2. orria erakutsi.

Entzun!

2	Eta...aiba! Idoia pirata batekin topatu zen kalean. Piratak egurrezko hanka bat zuen, eta buruan txapel handi bat. Eta gainera lorito bat zeraman berarekin. – Nor zara zu? - galdetu zion Idoiak. – Ni pirata Beltza naiz!
----------	--

Zein da egiazko marrazkia?

Hurrengo zatietan ere berdin jokatu.

3	<p>Idoia eta pirata hizketan gelditu ziren. Bitartean txakurra bide ertzeroa joan zen. Baina orduan-txe bertan kotxe bat pasatu zen handik eta... Plast!, putzuko ur zikina bota zion txakur gaixoari.</p>
4	<p>Idoia negarrez hasi zen. – Buaaa! Nere txakurra zikin-zikina gelditu da - esan zuen. Txakurra ere asko tristetu zen.</p>
5	<p>– Ez negarrik egin-esan zuen piratak. – Nere itsasontzian garbituko dugu txakurra. Esan eta egin. Portu aldera abiatu ziren laurak. Bertara iritsitakoan itsasontzira sartu ziren denak.</p>
6	<p>Piratak txakurra hartu zuen, labadoran sartu eta mar-txan ipini: Ron! Ron! Ron! Hantxe ikusten zen kristaletik gure txakurra jabei artean bueltaka. Glu! Glu! Glu!</p>
7	<p>Azkenean, labadoratik atera zuten garbi-garbia eta zuri-zuria. Idoiak besoetan hartu zuen bere txakurtxoa eta gero piratari musu handi bat eman zion.</p>
8	<p>Loritoa ere asko poztu zen eta hegaz egin zuen bere nagusiaren lepotik ardo barrika baten gainera.</p>
9	<p>Gero belak zabaldu zituzten eta itsasora abiatu ziren pozik olatu handien artean.</p>
10	<p>Portura iritsi zirenean, Idoiak esan zuen: Ui! berandu da. Etxera joan behar dut. Agur pirata ona! Agur lagunok! Eta Idoia eta bere txakurra korrika joan ziren etxe aldera.</p>

Mintzamen proba

Ederki! Orain beste ipuin bat ikusiko dugu. Begira zer marrazki politak (astoaren historia erakutsi). Baina oraingoan zuk kontatuko didazu historia. Begira, hemen hasten da eta hemen bukatzen da (ordena seinalatuz: ezkerretik eskuinerako lerroak).

Aparatotxo honekin (grabagailua seinalatu), zuk esaten duzuna grabatuko dugu, bai?. Tira ba, ongi begiratu, pentsatu eta gero esaidazu zer gertatzen den marrazki bakoitzean. (une batzuk begiratzeko utzi).

Zer? Ikusi duzu? Lehenbizi zure izena grabatuko dugu (haurraren izena grabatu) Ea, ba, kontatu historia.

Historia kontatzen utziko zaio, haurrari hitza ebaki gabe. Baina narrazioaren ordezkari deskribapen hutsa egiten hasiko balitz geldiarazi eta bergogoratuko zaio:

Baina historia bat kontatu behar didazu, bai? Zer gertatzen da hemen?

Edo marrazkiren bat komentatu gabe utziko balu ere galdetuko zaio:

Eta hemen zer gertatzen da?.

Amaitutakoan: **Ederki! Amaitu dugu!**

ZUZENKETA ARAUAK

ULERMEN PROBA

Haurrak emandako erantzunak puntuazio-orrian apuntatzen dira (0 galdera, probakoa, izan ezik). Asmatutakoak koadro ilunetan geldituko dira. Puntuazio zuzena asmatutakoen batuketa da, Orik 10era bitartekoa.

(A)



(B)



(C)



Irudien izendapena

MINTZAMEN PROBA

Haurrak kontatutakoa grabaturik dagoenez gero, horren transkripzioa da lehen egitekoa. Horretarako lekua bada puntuazio orriaren atzekaldean.

Haurrak kontatu duen historian marrazki bakoitzari dagokion hizketa zatia zein den zuzentzaileak erabaki behar du. Beraz bereizketa lan hori egiteak kontu piska bat eskatzen du.

Bi arlo ebaluatzen dira marrazki bakoitzari dagokion hizketa zatian:

- 1.- ZUZENTASUN GRAMATIKALA
- 2.- MEZUAREN ZEHAZTASUNA

Arlo horietariko bakoitza 0 puntutik 4era bitartean puntuatzen da baremo honen arabera:

puntuak →	0	1	2	3	4
ZUZENTASUN GRAMATIKALA	mezurik ez	huts handiak	huts handi bat	huts txikiak	hutsik ez

puntuak →	0	1	2	3	4
MEZUAREN ZEHAZTASUNA	mezurik ez	Gertakizun garrantzikorik ez du adierazten	Bigarren mailako gertakizuna edo nagusia zehaztasun faltaz	Gertakizun nagusia edo 2.mailakoa aberasgarriren batekin	Gertakizun nagusia eta aberasgarriren bat gehiago

Ondoren, badira OROKORKI ebaluatzeko arloak, hau da, ez irudika, ipuin osoari begira baizik. 0-tik 3ra puntuatzen dira.

- 3.- ALOR OROKORRAK (Abiadura, Etorria, Sintaxia, Ahoskera)

puntuak →	1	2	3
ABIADURA	Oso motel hitzegiten du. Hitzak ez datozkio ahora. Nekagarri gertatzen da.	Abiadura normala.	Azkar hitzegiten du.

puntuak →	1	2	3
ETORRIA	Kontakizun laburra 1 - 30 hitz.	Erdipareko kontakizuna. 30-50 hitz.	Kontakizun luzea 50 hitzetik gora.

puntuak →	1	2	3
SINTAXIA	Badirudi erdaratik itzultzen ari dela. Ez jatorra.	Esaldi sinpleak, baina jatortasunez.	Esaldi sinpleak eta subordinaturen bat erabiltzen du zuzen (-eLA, -TEKO, -eN...).

puntuak →	1	2	3
AHOSKERA	Huts nabariak: Fonema nahasketa (TZ ez esatea) eta doinu- era erdalduna.	Hutsen bat dauka, ahoskeran edo doinueran.	Ahoskera ona. Gutxienez TX-TZ berezten ditu. Doinuera jatorra.

Mintzamen probari, beraz, gehienez, 60 puntu dagozkio (6 marrazki bider 8 puntu gehi 4 arlo orokorrak bider 3.)

I



II



III



IV



V



VI



BAREMOAREN ZEHAZTASUNAK

Goiko baremo hori aplikatzeko, ordea, kontzepto batzuk zehaztu beharra dago. Ikus ditzagun. (1).

Huts gramatikal handiak

Huts gramatikal handitzat hartzen ditugu, euskararen oinarritzko egiturei erasotzen dieten hutsak, hau da, gaizki egoteaz gain seguraski euskaldun jator bati "belarriko mina" emango lioketenak.

Gehienbatean amahizkuntza erdalduna duten haurrengan aurkituko ditugu.

Esate baterako:

- Deklinabide mailako falta gogorak.
"Gizona kotxea igo du kamioira" (NORK)
"Kotxea kamioia txokatu dira" (NOREKIN)
"Gizona ospitala eraman du" (NORA)
- Aditz jokatu gabea edo gaizki jokatu
"Eta joan ospitalera"
"Ospitalera joan dute"
- Euskaraz arruntak diren hitzak erdaraz ematea
"Burroa nekatu egin da"
"Kotxetik sakatu du".

Huts gramatikal txikiak

Huts gramatikal txikitzat hartzen ditugu, jatorrizko hiztunek ere maiz samar egin ditzaketanak, hau da, lokalismoak, arruntkeriak, hutsune pertsonalak, noizbehinkakoak etab.; orokorki, aurrekoak bezain larriak ez direnak.

Esate baterako:

- Lokalismo okerrak edo hizkera normalean hedatutako faltak.
"Ospitalera eramaten dio".
- Errakuntza pertsonalak, noizbehinkakoak...
"Txokea txokatu da".
- Sujetuaren edo beste elementu baten elipsi gogorregiak, esaldiaren ulermena kolokan ipintzen dutenean.
"Nekatuta dago". (Astoa? Gizona?)

(1) Zehaztasun hauek irakurri eta aztertzeaz gain komenigarri da **Zuzenketa adibideak** ikustea 37. orrialdetik aurrera.

Hots:

- Esaldi batean huts handiak direnean, huts txikiak ez dira kontuan hartuko.
- Haurrak ez dute euskara batuan hitz egin beharrik. Euskalkietako forma, egitura edo ahoskerak onargarriak dira, gramatikalki okerrak ez badira.

Aberasgarriak

Haurrak, gertakizun garrantzizkoa zehaztasunez eta gramatikalki zuzen adierazteaz aparte, 1) hizketaren kalitate haundiagoa dakarten hitzak, esaerak, perpausak, esaten baditu, edo 2) irudiko ekintzaren bat gehiago adierazten badu nagusiaz gain, horiek **aberasgarri** bezala hartuko dira. Adibidez:

“Batek kotxea igotzen du kamioira **eta bestea lurrean eserita dago**”.

“Astoa **maldan gora doa** kamioitik tiraka”.

Gertakizun garrantzizkoak

Historiaren harian inportanteak diren gertakizunak hainbat dira. Batzutan pertsona helduak inportantetzat jotzen dituenak, ordea, ez dira zentralak haurarentzat.

Horregatik hiru mailako gertakizunak berezi ditugu:

- A - Gertakizun nagusiak
- B - Bigarren mailakoak
- C - Garrantzizkoak ez direnak

A.- Gertakizun nagusiak

Nolabait ere oinarritzekoak dira historiaren logikotasuna mantentzeko. Modu desberdinetan adieraz daitezke baina gutxi gora behera honako puntuok aipatu behar lirateke:

- 1 - Asto bat kamioian joan, eraman, ekarri, etorri...
- 2 - Txokea...
- 3 - Gizona atera...
- 4 - Kotxea bultza edo igo...
- 5 - Astoak tira edo eraman...
- 6 - Ospitalera joan...

B.- Bigarren mailako gertakizunak

Ez dira hain oinarrizkoak, baina haurraren atentzioa erakar dezakete.
Adibidez:

- 4 - Gizona lurrean dago
- 5 - Astoa nekatuta dago
- 6 - Astoa etzanda dago.

C.- Garrantzizkoak ez direnak

- 3 - Astoa begira dago
- 4 - Gizona triste dago
etab.

AZKEN PUNTUAZIOEN TAULAK

PUNTUAZIO OROKORRAK

B eredia

Lortutako bi puntuazio zuzenak puntuazio tipifikatu bihurtzeko konbertsio tauletan begiratu behar da. Gero bi puntuazio hauek batu eta **Puntuazio Orokorra** lortzen da.

Haurraren Euskara Maila jakiteko 35. orrialdeko grafikoan begiratu behar da. Bere puntuazioa lagin originaleko poblazioarekin konparatzen da horrela.

D eredia

D ereduan Mintzamen froga bakarrik aplikatzen denez, ez da konbertsio taularik behar. Aski da Mintzameneko Puntuazio Zuzenari dagokion Euskara Maila begiratzea (ikus 35 or.).

KONBERTSIO TAULAK

Ahozkoaren Ulermena (B eredua)

	P.Z.	P.T.
1		34
2		68
3		102
4		136
5		170
6		204
7		238
8		272
9		306
10.....		340

Mintzamena (B eredua)

	P.Z.	P.T.		P.Z.	P.T.
1	8		31.....		242
2	16		32.....		250
3	23		33.....		257
4	31		34.....		265
5	39		35.....		273
6	47		36.....		281
7	55		37.....		289
8	62		38.....		296
9	70		39.....		304
10.....	78		40.....		312
11.....	86		41.....		320
12.....	94		42.....		328
13.....	101		43.....		335
14.....	109		44.....		343
15.....	117		45.....		351
16.....	125		46.....		359
17.....	133		47.....		367
18.....	140		48.....		374
19.....	148		49.....		382
20.....	156		50.....		390
21.....	164		51.....		398
22.....	172		52.....		406
23.....	179		53.....		413
24.....	187		54.....		421
25.....	195		55.....		429
26.....	203		56.....		437
27.....	211		57.....		445
28.....	218		58.....		452
29.....	226		59.....		460
30.....	234		60.....		468

P.Z. = Puntuazio Zuzena
P.T. = Puntuazio Tipifikatua

**EUSKARA MAILA
B EREDUA**

Puntuazio Orokorra

MAILA

710	
567	GOIKOA
424	ERDIKO GOIKOA
280	ERDIKO BEHEKOA
137	BEHEKOA

**EUSKARA MAILA
D EREDUA**

Mintzameneko
Puntuazio Zuzena

MAILA

60	
51	GOIKOA
40	ERDIKO GOIKOA
30	ERDIKO BEHEKOA
18	BEHEKOA
9	OSO BEHEKOA

ZUZENKETA ADIBIDEAK

MINTZAMEN FROGAREN TRANSKRIPZIOA

1. Egun batean zaldi bat kamioi joaten da 2+3
2. Eta gero txokatu da 4+3
3. Eta gero joan dau suntu kotxe bat 1+1
4. Eta gero jazarrita egon dau 2+1
5. Eta gero joan dau zaldi hau 2+1
6. Eta gero zaldi bat lurrean tumbatu da 2+2

PIR-5
HIZKUNTZ TESTA
PUNTUAZIO ORRIA

IZEN ABIZENAK **IANIRE** ADINA **5**
IKASTETXEA DATA **1986-V-7**

EREDUA **B**

AHOZKOAREN ULERMENA

	A	B	C
0	Ez da kontatzen		
1		X	
2		X	
3		X	
4	X		
5			X
6			X
7		X	
8		X	
9	X		
10	X		

PUNTUAZIO ZUZENA **05**
PUNTUAZIO TIPIFIKATUA **170**

MINTZAMENA

	I	II	III	IV	V	VI
ZUZENTASUN GRAMATIKALA	2	4	1	2	2	2
MEZUAREN ZEHAZTASUNA	3	3	1	1	1	2
	ABIADURA	ETORRIA	SINTAXIA	AHOSKERA		
ALOR OROKORRAK	1	2	1	1		

PUNTUAZIO ZUZENA **29**
PUNTUAZIO TIPIFIKATUA **226**
PUNTUAZIO OROKORRA (Tipifikatuen batura) **396**

EUSKARA MAILA **ERDIKO BEHEKOA**

MINTZAMEN FROGAREN TRANSKRIPZIOA

1. ... Egun batean kamioi bat eta kotxe bat 2+2
 ... hasi ziren karreteratik
2. ... eta *txoke bat egin zuten 3+3

3. ... eta astoa gelditu zen kotxean 4+2

4. ... baino gizona gaixorik zegoen eta *santu 3+2
 ... zuten kotxea kamioian
5. ... eta astoa gelditu zen kamioia tiratzen 4+3
 ... eta tiratzen
6. ... eta astoa nekatu zen eta tunbata zen lu- 2+4
 ... rrean, baina gizona joan zen Herikara

PIR-5
HIZKUNTZ TESTA
PUNTUAZIO ORRIA

IZEN ABIZENAK **AINARA** ADINA **5**
 IKASTETXEA DATA **86-V-7**

EREDUA A B C

AHOZKOAREN ULERMENA

	A	B	C
0	Ez da kontatzen		
1	X		
2		X	
3		X	
4	X		
5		X	
6			X
7		X	
8		X	
9		X	
10	X		

PUNTUAZIO ZUZENA
 PUNTUAZIO TIPIFIKATUA

MINTZAMENA

	I	II	III	IV	V	VI
ZUZENTASUN GRAMATIKALA	2	3	4	3	4	2
MEZUAREN ZEHAZTASUNA	2	3	2	2	3	4
	ABIADURA	ETORRIA	SINTAXIA	AHOSKERA		
ALOR OROKORRAK	2	3	2	3		

PUNTUAZIO ZUZENA
 PUNTUAZIO TIPIFIKATUA
 PUNTUAZIO OROKORRA (Tipifikatuen batura)

EUSKARA MAILA

* Sujetuaren elipsi gogorrak.

MINTZAMEN FROGAREN TRANSKRIPZIOA

1. Hementxe zaldire. 2oan kotxian eta gero gizona zetonen 4+3
2. ta txake egin zuten 4+3
3. ta kotxeko gizonak golpe handia hartu eban 4+2
4. Gero, kamioiko gizonak hartu eban kotxia ta kamioi barrura sartu eban 4+3
5. eta gero zaldixak kamioia eroan bihat zuen 4+3
6. eta gero zaldixa nekatu egin zan eta gizona kotxekua ospitalera eroan zuten 4+4

**PIR-5
HIZKUNTZ TESTA
PUNTUAZIO ORRIA**

IZEN ABIZENAK **JULEN** ADINA ⁵ DATA **26-V-7**
IKASTETXEA

EREDUA

AHOZKOAREN ULERMENA

	A	B	C
0	Ez da kontatzen		
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			

PUNTUAZIO ZUZENA
PUNTUAZIO TIPIFIKATUA

MINTZAMENA

	I	II	III	IV	V	VI
ZUZENTASUN GRAMATIKALA	4	4	4	4	4	4
MEZUAREN ZEHAZTASUNA	3	3	2	3	3	4
ALOR OROKORRAK	ABIADURA		ETORRIA		SINTAXIA AHOSKERA	
	2		2		3	

PUNTUAZIO ZUZENA
PUNTUAZIO TIPIFIKATUA
PUNTUAZIO OROKORRA (Tipifikatuen batura)

EUSKARA MAILA

MINTZAMEN FROGAREN TRANSKRIPZIOA

1. Astoa zegoen kamioian eta kotxea beste aldean eta ezin zuten pasatu 4+4
2. Gero txokatu ziren 4+3
3. eta kamioi gizona ikusi zuen gizoneko kotxearen jabea eta sartu zuen kotxean 1+2
4. Gero atera zen kotxetik eta kamioiaren gizona kotxea sartu zuen 2+2
5. Gero itxi zuen kamioia eta astoak eraman zituen biek 2+2
6. Gero joan ziren medikura gero astoa zeliditu zen gaixoik eta gizona kotxearen jabea Klinikara eraman zioten 1+4

**PIR-5
HIZKUNTZA TESTA
PUNTUAZIO ORRIA**

IZEN ABIZENAK IKASTETXEA **AIDA** ADINA **5**
DATA **86-U-7**

EREDUA D

AHOZKOAREN ULERMENA

	A	B	C
0	Ez da kontatzen		
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			

PUNTUAZIO ZUZENA

PUNTUAZIO TIPIFIKATUA

MINTZAMENA

	I	II	III	IV	V	VI
ZUZENTASUN GRAMATIKALA	4	4	1	2	2	1
MEZUAREN ZEHAZTASUNA	4	3	2	2	2	4
ALOR OROKORRAK	ABIADURA		ETORRIA		SINTAXIA AHOSKERA	
	2	3	1	2		

PUNTUAZIO ZUZENA **39**

PUNTUAZIO TIPIFIKATUA

PUNTUAZIO OROKORRA (Tipifikatuen batura)

EUSKARA MAILA **ERDIAO BEHEKOA**

IKERLANAREN AZALPENA

IKERLANAREN DISEINUA

Eskolaurre bukaerako B eta D ereduaren euskara maila, eta maila honetan eragiten duten aldagaiak aztertzea izan da lan honen helburua.

PIR-5 testa hartu da ardatzat eta bertan lortutako puntuazioekin erlazionatu dira jasotako beste aldagaiak.

Aurrerago esan bezala, (ikus 11-12 or.) neurketak eta datu bilketa 1986ko Maiatzean egin ziren 963 sujetuko lagin errepresentatibo batean.

Hauek dira, laburbilduz, jaso ziren datuak:

- a) "PIR-5" hizkuntz testaren bitartez, eskolaurreko haurren euskararen indize bat lortu zen.
- b) Inkesta soziolinguistikoko baten bidez, haurraren eta gurasoen hainbat datu jaso ziren, hala nola
 - Eskolaren eta gelaren ezaugarri pedagogiko batzuk
 - Irakaslearen datuak eta espektatibak
 - Haurraren ezaugarri pertsonalak eta jarrerak.
 - Haurren portaera linguistikokoaren datuak.
 - Familiaren ezaugarri soziolinguistikokoak
 - Gurasoen maila sozioekonomikoaren datuak
 - Inguru hurbilaren hizkuntz ezaugarriak
 - Irakasleak egindako haurraren euskara mailaren balorazioa.

HAURREK LORTUTAKO PUNTUAZIOAK

Ahozkoaren Ulermena

B ereduaren ondo diskriminatzen du froga honek. Batezbestekoa 6.5koa da eta desbiderapena 2.2koa.


Histograman ikusten denez, erraz aldera jotzen du piska bat.

Eskolaurreko lagin honen puntuazioek, bestalde, O.H.O.ko 2. mailako puntuazioek (ikus EIFE ikerlana, 1984eko datuak) baino homogeneitate handiagoa erakusten dute, beti ere B ereduaz mintzo garela, noski.

D eredurako froga errazegia da. Ez du behar hainbat diskriminatzen goiko mailetan. Halere bada haur taldetxo bat puntuazio bajeetan biltzen dena.

1. irudia

Ahozkoaren ulermena B eta D ereduatan



Mintzamena


B eredu:

Ereduen arteko diferentziak handiagotu egiten dira hemen. B ereduaren histograma oso zentratua gelditzen da. Aurreko frogako homogeneitatea mantentzen da. Nolanahi ere batere hitzik esan ez dutenen taldea ikus dezakegu ezker aldean, zero punturekin.

Froga hau zuzentzeko aplikatzen den baremoa, beraz, B eredura nahiko egokituta dagoela esan daiteke. B ereduko talde handiena 20 eta 35 puntu artean mugitzen da. Baina azter dezagun zehazkiago baremoak eman lezakeen informazioa. Zuzentasun gramatikalean esan daiteke gehienetan huts gramatikal handi bat edo gehiago egiten dutela. Mezuaren zehaztasunean izandako puntuazioak aztertzen baditugu denetik aurkituko dugu: gertakizun garrantzizkorik esaten ez dutenetatik gertakizun nagusia esaten dutenetaraino, baina aberasgarririk gutxi aurki daiteke. Abiadura normala du askotxok, baina gehienek motela. Etorri txikia gehienek, 30 hitz baino gutxiagoko kontakizuna osatzen bait dute.

Erdipareko kontakizunak (30-50 hitz) mordoska dira, baina hortik gorakòak gutxi. Sintaxia, badirudi, erdararekin nahiko kutsatua dutela. Ahoskeran eta doinueran gutxi samar dira jatorrizko hiztunen mailara iritsi direnak.

2. irudia Mintzamena B eta D ereduetan



D eredua:

D ereduan puntuazioak altuagoak dira. Gehiengoa 40-50 punturen inguruan dabilelarik. Multzo bat atzerago gelditzen da, B ereduko puntuazioen parean.

Zuzentasun gramatikalari dagokionez D eredukoek ongi hitz egiten dute, edo huts txikiekin. Halere huts handiak ere agertzen dira portzentaia on batean (mezuen %30 batean edo).

Mezuaren zehaztasuna ongi lortzen dute, eta batzutan zehaztasun falta zenbait sortzen badira ere, bestetan elementu aberasgarriak ere agertzen dira.

Abiadura normalez mintzatzen dira gehienak. Motel mintzatzen direnen talde bat badago, eta azkar egiten dutenena ere bai, hauek gutxiago badira ere.

Etorriari dagokionez gehienek kontakizun erdipareko edo luzeak osatzen dituzte.

Sintaxian, esaldi sinpleak erabili dituzte gehienbatean, baina jatortasunez. Multzo bat bada, sintaxi nahiko erdalduna erabiltzen duena, eta beste talde txikiago bat esaldi subordinatuak ere esan dituen, nahiz ipuina horretarako egokiena ez izan.

Test osoaren puntuazioak

Ahozkoaren Ulermen eta Mintzamen frogen puntuazioak konbinatuz puntuazio orokorra kalkulatu da azpiproba bakoitzaren bariazio koefizientean oinarriturik. (Ikus 12. or.)


Azken finean ponderazio formula hauek aplikatu dira:


$$B \text{ ereduko Puntuazio Orokorra} = UL \times 34 + MIN \times 7,8$$

$$D \text{ ereduko Puntuazio Orokorra} = UL \times 29 + MIN \times 4,3$$

Bi ereduetako Puntuazio Orokorrak ez dira konparagarriak. Hona hemen histogramak:

3. irudia Puntuazio Orokorra B ereduan





JASOTAKO BESTE DATUAK

Hizkuntz testetik jasotako datuez gain, ikasle, irakasle zein gurasoei hainbat galdera egin zitzairen. Hona hemen laburbildurik:


Irakasleei egindako galderak

1. **Euskaldun portzentaia gelan:** B ereduko gela gehienetan ez dago euskaldunik edo oso gutxi. D ereduetan berriz, gehienetan, euskaldun kopuru handi bat dago, %60-100, baina badira %20 baino gutxiagokoak ere.
2. **Haur kopurua gelan:** D ereduko geletan, 21-30 bitarteko haur kopurua dago gehienetan. Bko gela asko ere tamaina honetakoak dira, baina txikiagoak (11-20 ikaslekoak) ere dexente dira.
3. **Irakasle jaiotzez euskalduna:** Jaiotzako euskaldunak diren irakasleak gehiago dira D ereduan (%81) B ereduan baino (%56)
4. **Euskarazko titulua:** Irakasle gehienek omen dute. %86k D ereduan eta %80-k Bn.
5. **Euskarazko saio intentsiboa:** Batez ere B ereduko praktika da hau. Ia denek egiten dute. D ereduan ere egiten dutela aitortzen dute askok.
6. **Hizkuntza bakoitzerako irakasle bat:** Hau ere B ereduko praktika da. Hala ere erdiak baino gutxiagok egiten du banaketa hau.

7. **Jolasaldiko hizkuntz giroa:** D ereduko ia irakasle guztiek esaten dute beren haur gehienak euskaraz mintzatzen direla jolasaldian. B ereduari berriz kontrakoa gertatzen da: gehienek erdaraz egiten omen dute, eskola batzuetan salbu.
8. **Irakasleekiko hizkuntz ohitura:** Irakasle gehienei haurrek euskaraz hitz egiten diete jolasaldian, bai B ereduari eta nola ez D ereduari ere.
9. **Euskarari dedikatutako denbora:** D ereduari oso uniformea da. Ia denek denboraren %75-100 egiten dute euskaraz. Hala ere ikastetxe batzuk gutxiago dedikatzen diote. Bn ordea oso denbora ezberdinak dedikatzen zaizkio. Haurren %50 batek, eskola denboraren %50-75 jasotzen du euskaraz; %35 batek, %75-100 eta % 15 batek %25-50.
10. **Hizkuntz helburuak bete:** Irakasleen ustez eskolan dituzten hizkuntz helburuak neurri handi batean betetzen dira. D ereduari %6k bakarrik uste du helburuen erdira ere ez direla iristen. B ereduari portzentaia hau igo egiten da: %21 dira muga horretara iristen ez direla pentsatzen dutenak.

5. irudia

Euskarari dedikatutako denbora B eta D ereduari




11. **Lanarekin gustora egon:** Galdera honen erantzuna harrigarri samarra izan da. D ereduari irakasle guztiek diote gustora daudela bere lanarekin, eta B ereduari %97-k. Galdera egiteko modua zuzenegia izan da agian, irakasleekin lagun artean hitz eginez behintzat ez bait dirudi denak hain gustora daudenik.

Haurrei egindako galderak

12. **Haurrak amarekin eta aitarekin erabiltzen duen hizkuntza:** D ereduko %70 batek euskaraz hitzegiten du amarekin. Bn aitzitik, %76 batek gaztelaniaz. Aitekin, berriz, gehixeago egiten dute gaztelaniaz.

6. irudia


Haurrak amarekin erabiltzen duen hizkuntza B eta D ereduetan



13. **Gurasoek, haien artean, erabiltzen duten hizkuntza:** Haurrek esandakoaren arabera B ereduko haurren guraso ia guztiek gaztelania erabiltzen dute beren artean (%90). D ereduaren ere, norbaitek bestela pentsatu arren, gaztelania da gurasoen artean hizkuntzarik erabiliena. %33 batek euskara hutsa erabiltzen du eta %11 batek gehienetan euskara. Gaztelania beti %45ek eta gehienetan %10ek.


Beraz, EIFE azterlanean ikusten zen bezala, hemen ere konproba daiteke gurasoen artean euskara aski gutxiago egiten dela haurrei hitzegiterakoan baino.

7. irudia
Famili harremanen hizkuntza D eredu



14. **Euskaraz hitzegitea gustatu:** Orokorki, hurrei asko gustatzen zaie euskaraz hitzegitea, bai B eta batez ere D eredu. Halere Bn bada %15 bat "batere gustatzen ez zaiola" dioena.

8. irudia
Irakaslearekiko hizkuntza jolasaldian B eta D eredu



15. **Irakaslearekin jolasaldian erabiltzen duten hizkuntza:** D ereduko haur gehien-gehienek euskaraz egiten du irakaslearekin jolasaldian.

B ereduan, berriz %17 bat badago erdaraz egiten duena eta %14a bi hizkuntzetan aritzen dena.

Datu hauek nahiko koherenteak dira irakasleak, beren aldetik, gai honetaz adierazi dutenarekin.

16. **Lagunekin erabiltzen duten hizkuntza:** D ereduan gehiengoak (%58) euskaraz hitzegiten du eta %20k bi hizkuntzetan. B ereduan berriz %70 batek gaztelaniaz.

Gurasoei egindako galderak

Esan bezala, gurasoen maila sozioekonomikoari buruzko datu batzuk ere jaso ziren. Erantzuna borondatezkoa zenez hainbat gurasok ez zuen erantzun. Erantzun eza D ereduan %30-35 ingurukoa izan da, eta B ereduan %40-45ekoa, galderen arabera. Beraz datu hauek kontuz maneiatzekoak dira.

17. **Amaren maila sozioprofesionala:** Gehienak, %70 inguru, etxeko lanetara dedikatzen dira. Lan egiten dutenen artean badirudi D eredukoek maila zerbait hobea dutela Bkoek baino.
18. **Aitaren maila sozioprofesionala:** Bai B, bai D ereduan, aita gehienak (%50 inguru) langile espezializatuak edo zerbitzuetakoak dira. Beste lanbideetakoek artean Dkoak zerbait maila hobea dutela dirudi, peoi gutxiago eta enpresari eta administrari gehixeago bait dago.
19. **Amaren diru sarrerak hilean:** Gehienek ez dute ezertxo irabazten. Irabazten dutenen artean Dkoek maila altuxeagoa dute.
20. **Aitaren diru sarrerak hilean:** Talde handienak, bi ereduetan, 75.000tik 100.000 bitarteko diru-sarrerak omen ditu (%40 inguru). Nolanahi ere badirudi D ereduan batezbesteko altuxeagoa dutela.
21. **Langabeak:** Erantzun dutenen artean amen %11-k langabezian daudela esaten du, bi ereduetan. Aiten artean %10 B ereduan eta %8 Dn.

Esan bezala, gurasoei egindako galdera hauetan erantzun eza handi samarra izan da eta horrek soslai ditzake datuok.

Beste hainbat datu

22. **Ikastetxe mota:** B ereduan ikasle gehienak eskola publikokoak izan dira. D ereduan, berriz, gehienak ikastolakoak.
23. **Lurraldea:** Gauza aipagarriena Araban D ereduko oso haur gutxi direla.

24. **Zona Soziolinguistikoa:** B ereduak zona erdaldunenetan kokatzen dira. D eredukoak zona guztietan daude.
25. **Adimen koefizientea:** Cattell-en G faktorearen 1. eskala pasatu zitzaion azpilagin bati. Koefizienteen distribuzioa guztiz normala da bi ereduetan.
26. **Irakasleak haurraren euskara mailari buruz duen iritzia:** Irakasleak bere gelan aztertu ziren haurren Ulermenaz eta Mintzamenaz iritzia eman zuen, aurkezten zitzaion eskala baten bidez.

ALDAGAIEN ERAGINA HIZKUNTZ TESTAREN PUNTUAZIOAN

Hizkuntz testetik ateratako puntuazio orokorra (bi azpittesten konbinaketa) aldagai dependentetzat hartu da eta jasotako beste aldagaiak, berriz, independentetzat. Horrela aldagai hauek euskara mailan izan dezaketen eragina aztertu nahi izan da.

Hortaz, aldagai independenteak euskara puntuazioekin kontrastatu dira banan-bana, **Bariantzaren Analisia** deituriko sistemaren bitartez. Anlisi honek aldagai koantitatibo bat (puntuazioa) eta koalitativo baten (aldagai baten) artean loturarik dagoen ala ez esaten digu halako probabilitate batekin. Aldagaien lehen selekzio bat egiteko erabili dugu.

Hona hemen, eredu bakoitzean, puntuazioarekin signifikatiboki lotuak agertu diren aldagaiak.

B eredua

- Euskarari dedikatutako denbora
- Irakasleekin jolasaldian erabiltzen duten hizkuntza
- Irakasleen ustez hizkuntz helburuak betetzen diren
- Jolasaldiko hizkuntz giroa
- Euskaraz hitz egitea gustatu
- Lagunekin erabiltzen duten hizkuntza
- Haurrak aitarekin erabiltzen duen hizkuntza
- Haurrak amarekin erabiltzen duen hizkuntza
- Lurralde
- Gurasoek, beren artean, erabiltzen duten hizkuntza
- Euskaldun portzentaia gelan
- Haur kopurua gelan
- Zona soziolinguistikoa
- Ikastetxe mota

Beste aldagai batzuk ez ziren signifikatibo gertatu, hala nola Irakaslea jaiotzez euskalduna den, Euskarazko titulorik duen, Euskarazko saio intentsiboa, Hizkuntza bakoitzerako irakasle bat izatea, Gurasoen maila sozioprofesionala, Familiaren diru-sarrerak, edota Adimen koefizientea.

D eredua

Hauetxek azaldu ziren signifikatibo:

- Jolasaldiko hizkuntz giroa
- Euskarari dedikatutako denbora
- Euskaldun portzentaia gelan
- Lagunekin erabiltzen duten hizkuntza
- Irakasleekin jolasaldian erabiltzen duen hizkuntza
- Irakasle jaiotzez euskalduna
- Lurralde

- Haurrak amarekin erabiltzen duen hizkuntza
- Haurrak aitarekin erabiltzen duen hizkuntza
- Gurasoek, beren artean, erabiltzen duten hizkuntza
- Irakaslearen ustez hizkuntz helburuak betetzen diren
- Haur kopurua gelan
- Aitaren diru-sarrerak
- Zona soziolinguistikoa
- Ikastetxe mota

Beste aldagai batzuk, berriz, ez dira puntuazioekin signifikatiboki lotuak agertu: Euskarazko titulua, Euskaraz hitz egitea gustatu, Gurasoen maila sozioprofesionala, Irakasleak lanean gustora egotea, Adimen koefizientea etab.

Analisi Multibariantea: Erregresio Anitza

Analisi mota honetan aldagai guztiak batera behatzen dira, eta aldagai bakoitzak, berez dagokion pisua hartzen du, beste aldagaiekin dituen loturak kontuan hartuz.

Erregresio Anitzaren Analisia modu orokorrean egin da lehenik, eta gero analisi partzialak "pausoz pausokoak", aldagai bakoitzaren "inpakto" zehatza ezagutu nahian.

Honez gain **kontingentzia taulak** ere egin dira, aldagai independenteen arteko loturak banan-bana hobeto ezagutzeko.

Erregresio Anitzaren Analisia egiteko, oinarrian, Bariantzaren Analisisian signifikatiboak agerturiko aldagaiak hartu dira. "Aitaren diru-sarrerak" aldagaia, halere, baztertu egin da oraingoan, erantzun ezaren neurri handiak oso fidagarritasun eskasa ematen baitzion. "Haurrak aitarekin erabiltzen duen hizkuntza" ere alde batera utzi da, "amarekin erabiltzen duenak" informazio beretsua eskaintzen bait digu. Gauza bera egin da "Lurraldea"rekin, aparteko interesik ez bait zuen datu honek, eta "Zona Soziolinguistikoa" informazio zehatzagoa eskaintzen bait du.

Aldagai bakoitzaren eragingarritasuna ezagutu nahian "pausoz pausoko" erregresio anitzak egin dira. Honela F estatistikoaren diferentziaz jakin ahal izan da aldagai bakoitzak esplikatzeko duen bariabilitatea zenbaite-raino den signifikatiboa.


Hona hemen, beraz aldagaiok, beren F-az ordenaturik

B eredua. Aldagai eragingarriak	F
1- Euskarari dedikatutako denbora	12.69
2- Euskaraz hitz egitea gustatu	10.51
3- Haurrek jolasaldian erabiltzen duten hizkuntza	8.07
4- Irakasleekin jolasaldian erabiltzen duten hizkuntza	5.60
5- Amarekiko hizkuntza	4.50
6- Zona soziolinguistikoa	4.09
7- Ikastetxe mota	3.89

8- Irakaslearen ustea helburuez	3.63
9- Haur kopurua gelan	3.45
10- Gurasoen arteko hizkuntza	0.83
11- Euskaldun portzentaia gelan	0.43
12- Lagunekiko hizkuntza	0.40

9. irudia

Aldagaien eragina B ereduko euskara mailan



B ereduan **Euskarari dedikatutako denbora** agertzen zaigu aldagai nagusi bost urteko haurren euskara maila esplikatzerakoan. Euskaraz ordu gehiago irakasten duten eskoletan, beraz, emaitza hobekiak lortzen dituzte. Ildo horretatik esan daiteke, hainbat ikastetxetan D eredutik gertu dagoen eredu ematen ari direla.

Euskaraz hitz egitea gustatzea ez dakigu kausa ala efektua den, baina oso lotuta agertzen da euskarari dedikatzen zaion denborarekin, eta dudarik ez dago, autosatisfakzio maila bat oso garrantzizkoa dela hizkuntz xedeak lortzen joateko.

Haurrek jolasaldian erabiltzen duten hizkuntza bai **beren artean**, bai **irakaslearekin**, oso garrantzizko agertzen da. B eredukoentzat eskola-
-hezkuntza da soilik euskara. Alabaina benetazko erlazio-hizkuntza izan behar du eskolan, gaztelaniak itota geratzea nahi ez bada. Eskolak, beraz, bere ahalegina egin lezake faktore hau indartzeko.

Amarekin erdaraz hitz egiten dute B ereduko haur gehienek, baina euskaraz zertxobait egitea abantaila handia da berentzat.

Zona Soziolinguistikoak muturretan bakarrik eragiten du diferentzia-
ren bat. Zonarik euskaldunenari notarik hoberenak dagozkio eta erdaldu-
nenari txarrenak.


Ikastetxe motari gagozkiolarik, argi ikusten da ikastolak direla emaitza
onenak lortzen dituztenak. Bertan euskarari denbora gehiago eskaintzen
zaio, irakaslearekin euskaraz hitz egiten da eta orohar irakasleek
hizkuntz helburuak gehiago betetzen direla uste dute, beste ikastetxee-
tan baino.

Gainontzeko aldagaien eragina txikia da eta azalpena ez beti oso garbia.
Gelako haur kopuruak adibidez ez du ordena zuzenik. Emaitza onenak,
halere, 30-40 haur bitarteko geletan lortzen dira.

D eredia. Aldagai eragingarriak	F
1- Euskarari dedikatutako denbora	10.17
2- Euskaldun portzentaia gelan	8.36
3- Irakasle jaiotzez euskalduna	8.10
4- Jolasaldiko hizkuntz giroa	7.59
5- Irakaslearekin jolasaldian erabiltzen duten hizkuntza	2.76
6- Lagunekiko hizkuntza	2.50
7- Haur kopurua gelan	1.89
8- Amarekiko hizkuntza	0.73
9- Gurasoen arteko hizkuntza	0.62
10- Zona soziolinguistikoa	0.58
11- Irakaslearen ustea helburuez	0.44

10. irudia

Aldagaien eragina D ereduko euskara mailan



Harrigarri samarra egiten da **euskarari dedikatutako denbora** hain nabarmen agertzea beste aldagaien aurretik. Baina badu bere esplikazioa. Eredu honetan ikastetxe gehien-gehienek euskaraz irakasten dute praktikoki egun osoz. Alabaina, badira batzuk denbora gutxiago dedikatzen diotenak. Ikasleen %5 bakarrik agertu da egoera horretan gure laginean, eta euskara maila oso bajua erakutsi dute. Aldagai honek, beraz, oso indartsua izan arren, ikasle gutxi afektatzen ditu. Gelako euskaldun kopuruari oso loturik dago eta baita jolasaldiko hizkuntz giroari ere.

Gelako euskaldun kopurua aztertzean, argi ikusten da bi bloke berezi behar direla. Gelako %60tik gora euskaldun direnena, eta hortik behera gelditzen direnena, hau da, gela erdaldunagoena. D ereduko ikasle gehienak lehen taldean daude, gela euskaldun samarretan.

Hain euskaldunak ez diren getan emaitzak ere kaskarragoak dira, logikoa denez, baina behin %60tik beherako muga pasatuz gero ezin da esan gela zenbat eta erdaldunagoa izanik emaitza okerragoak jasotzen dituztenik.

Irakasle jaiotzatik euskalduna duten ikasleek ere puntuazio hobek lortzen dituzte. Urte bakar bateko irakaslearen eragina ez da agian hain handia, baina eskolaurrean haurrak irakasle berarekin egonak izan daitezke bizpahiru urtetan, eta horrek eragina handiagotu egin du, noski. Aldagai hau beste batzuekin lotzen da, eskolako hizkuntz giroa, gelako euskaldun kopurua, edota zona soziolinguistikoarekin esate baterako.

Jolasaldian, hau da, komunikazio egoera nahiko libre batean, hurrek, **beren artean** eta **irakaslearekin**, erabiltzen duten hizkuntzak halako giro soziolinguistiko berezi bat sortzen du eskolan bertan. Bost urteko haur hauen kasuan, giro hori oraindik nahiko euskalduna ageri da D ereduko gela gehienetan. Baina **adiskideen mundua** ere sortzen hasia da adin honetan, eta hori erdaldunagoa da, dudarik gabe inkestako datuek erakusten duten bezala.

Gelako haur kopuruari dagokionez ezin da gauza handirik esan. Ez da diferentzia nabaririk ikusten notetan.

Amarekiko hizkuntza, gurasoen artekoa, zona soziolinguistikoa eta abarrek eragin txikia erakusten dute, baina oso lotuta agertzen dira aldagai eraginkorrenekin.

MULTZOEN DESKRIBAPENA

Analisi faktorial mota bat ere egin da, Korrespondentzia Anitzen Analisia. Honen emaitzarik ikusgarrienetakoa, agian, sujetu motak edo multzoak dira. Analisi horrek sartu diren aldagaiak kontuan harturik, gure sujetuen deskribapen bat eskaintzen digu multzoak bereziz.


B ereduan bi multzo berezten dira:

B-1 edo B intentsiboa dei genezakeena:

- Haurren %30 bat biltzen du.
- la denek, denboraren %75-100 dedikatzen diote euskarari.
- Irakasleekiko hizkuntza euskara da.
- Euskaraz mintzatzea asko gustatzen zaiela diote. Jarrera positiboa dute, beraz.
- Ikastetxe mota batekin lotzekotan, ikastolekin izan beharko luke, baina ikastetxe publiko eta pribatuetako haurrak ere badaude.
- Askok gipuzkoarrak dira.
- Puntuazio altu samarrak dituzte.

B-2 edo B ahula:

- Poblazioaren %70 bat biltzen du, eta aurrekoa baino talde heterogeneoagoa da.
- Euskarari dedikatzen dioten denbora laburragoa da. Gehienek %50-75 dedikatzen diote, baina badira hortik beherakoak ere franko.
- Jolasaldian erdara erabiltzen dute.
- Euskararekiko jarrerak positiboak dira gehiengoan, baina euskaraz hitz egitea ezer gustatzen ez zaion taldetxo bat bada (%12).



- Ikastetxe publikoetakoak dira askotxo.
- Puntuazio bajuagoak dituzte.
- Zona erdaldunenetakoak dira.

D eredura pasatuz, hiru klase berezi ditu analisiak:

D-1 deitu duguna:

- Talde nagusia da. Hurren %83a biltzen du.
- Gela oso euskaldunak dira.
- Jolasaldiko giroa euskalduna da.
- Amarekin euskaraz mintzatzen dira.
- Lagunekin ere gehienak euskara erabiltzen dute.
- Irakasle jaiotzez euskalduna dute gehienek.
- Puntuazio altuetan daude.

D-2:

- Laginaren %14a harrapatzen du.
- Zona erdaldunenetakoak dira.
- Euskaldun portzentaia oso bajuko geletakoak dira.
- Jolasaldiko giroa erdalduna da beren eskoletan.
- Ikastoletakoak dira gehienbat, (zona erdaldunetan D eredu gehienak ikastoletakoak bait dira).
- Gehienak Bizkaikoak dira.
- Puntuazioak oso sakabanaturik daude, altuetatik bajuetaraino.

D-3:

- Oso talde txikia da. Laginaren %2,6 besterik ez (12 sujetu).
- Euskarari besteak baino denbora gutxiago dedikatzen zaio beren geletan.
- Bizkaikoak dira denak.
- Zona erdaldunenetakoak dira.
- Lagunekin erdaraz aritzen dira.
- Irakaslearekin gaztelaniaz hitz egiten dute gehienek.
- Etxean ere erdaraz egiten dute.
- Irakasleek hizkuntz helburuez duten iritzia ez da oso baikorra.
- Puntuazio bajuak dituzte.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

GLOTODIDAKTIKA-LANAK:

1. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner.*
2. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J.A. Mujika.*
3. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi.*
4. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: NEURPIDEAK (argitaratu gabea).
5. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU.
6. HAURRAK EUSKALDUTZEN GIÑOLAREN BIDEZ. *I.M. de Lezea-Kukubiltxo.*
7. EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA: PROGRAMA.
8. EUSKALTZAINDIAK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK.
9. HAURRAK EUSKALDUTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *I.M. de Lezea.*
10. IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriondo.*
11. JOLASEAN. *I. Urbieta.*
12. AMONAREN IPUINAK. *E. Genua.*
13. IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada.*
14. ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. *I.M. de Lezea.*
15. HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz - I. Olaziregi.*
16. EABHEM: EUSKARA MAILA NEURTZEKO TESTA. *G. Ajuria - J. Ibarra - J. Sierra.*
17. EGA. 1983KO AZTERKETAK.
18. BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia.*
19. EUSKALKIZ EUSKALKI. *R.M. Pagola.*
20. KONTU KONTARI. *L. Iriondo.*
21. MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbieta.*
22. BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia.*
23. TREBATZEN. OHO-KO GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. *M. Sainz.*
24. EGA. 1984 ETA 1985-EKO AZTERKETAK.
25. GALBAHE-E2 HIZKUNTZ TESTA. *I. Olaziregi eta J. Sierra.*
26. GALBAHE-E1 HIZKUNTZ TESTA. *I. Olaziregi eta J. Sierra.*
27. GALBAHE C1 Y C2 TESTS DE LENGUA. *J. Sierra e I. Olaziregi.*
28. ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA. *I. Olaziregi eta J. Sierra.*
29. BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia.*
30. PIR-5 HIZKUNTZ TESTA. *I. Olaziregi eta J. Sierra.*

HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA:

1. BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. *A. Arejita - J. Eguskiza - J.M. Irazola - J. Uriarte.*
2. EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. *J.M. Irazola.*

ZABALKUNDE-LANAK:

1. EIMA. Euskal ikasmaterialen bilduma 1984. *R. Berriozabal.*
2. EIMA programa: Euskal ikasmaterialgintza. 1984eko ekitaldiaren azalpen baterabildua.
3. IRALE. Aurkezpen-txostena 1985-86.
4. EIMA. Euskal Ikasmaterialgintza (4 hizkuntzatan) (prestatzen).
5. IRALE. Irakaslegoaren alfabetatze-euskalduntzea (4 hizkuntzatan).
6. EGA. Euskararen Gaitasun-agiria (4 hizkuntzatan).
7. IRALE. Aurkezpen-txostena. 1986ko Udarako eta 1986-87ko ikasturterako programa.
8. EIMA. Euskal Ikasmaterialen bilduma 1986 *R. Berriozabal.*
9. EIMA. Euskal Ikasmaterialgintza. 1985erako ekintza plana.
10. EIMA. 1980-85 urteetako laguntza deialdien emaitzak.
11. IRALE. Irakaslegoaren alfabetatze-euskalduntzea. 1987ko Udarako eta 1987-88ko ikasturterako programa.
13. EIMA. Ikus-Entzunezko Ikasmaterialen bilduma 1986-87 *M. Usabiaga.*

55555555

55555555